

Abestietan sarritan agertzen dira leku izenak. Izen hauetako bi dira Erribera eta Gaztelugatxe, Bermeon dauden leku izenak. Abesti hauek entzun eta denon artean gelan abestu. Ondoren galdera bi hauek erantzun:

- a. Norenak dira kantuak?  
b. Zeri buruz egiten dute berba?

ERRIBERA	GAZTELUGATXE
<p>Erribera, Erribera, zure landen zabalera ortzi muga den hartan mugatzen da.</p> <p>Zure lur emankorretan isurtzen diren asmoak gogotsu hartuko al ditu lur gozoak.</p> <p>Zure gaztelu zaharrek gorderik duten antzina hats tristetan mintzo da haren mina.</p> <p>Horma zahar arraituetan txoriak dira kantatzen mendetako lo geldia salatzen.</p> <p>Nafarroa anai zaharra kondairaren lehen sustarra bego higan arbasoen amets hura.</p>	<p>Seiehun urte inguru kosta aldean zen gertatu, itsasgizon zahar batek behintzat hala zidan kontatu, enbat itzelak Gaztelugatxen untzi eder bat zuen hondatzen, euskaldunontzat barruan altxor haundiak ei zekartzan.</p> <p>Igaz udako goiz batez eguzkiaren lehen printzez jo nuen itsas barrena bihotza dardara eginez, murgildu nintzen ur gardenetan, arakatu ongi hare-haitzetan, han zegoen tinkaturik goroldioak estalirik.</p> <p>Indar guztioz bultzatzen altxor kutxa zabaldu nuen, atzera egin ninduen uhin haundia altxatu zen, inor ez zapaltzeko gogoia, zapalduak ez izatekoa, hau da gure urguilua altxor guztien iturria.</p> <p>Eta hau hola ez bazan sar nazatela kalabazan, ipui txit barregarriak kontatu nizekizuen plazan.</p>